# COVID-19-ESKOLA KIROLA. ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEENTZAKO GIDA

- Inskripzioak eta jarduerak egiteko beharrezkoak diren gainerako agiriak eskatu eta artxibatu.
- izapidetu erakunde eskudunen aurrean jarduera garatzeko beharrezkoak diren inskripzioak, protokoloak eta baimenak.
- Erakundearen osasun-arduraduna izendatu.
- Informazioa eta araudia jarduerarekin lotutako eragileen artean zabaldu.
- Protokoloari buruzko informazioa eskuratzen lagundu.
- Arduradunek, teknikariek eta, hala badagokio, arbitroek COVID-19ren aurreko prebentzio- eta higiene-neurriei buruzko nahitaezko prestakuntza eskura dezaten erraztu.
- Sintomak antzemanez gero, kirolariaren familiari jakinarazi.
- COVID-19 kasu bat detektatzen denean edo jarduerak egin bitartean sintomak dituen pertsona bat detektatzen denean, jarduketa eta komunikazio egokiak koordinatu.
- COVID-19ren aurkako prebentzio-neurriak betetzeak eragindako arriskuei lotutako arau-hausteen entitatearen Barne Araubideari edo Diziplina Araubideari buruzko Erregelamenduan sartu, eta zuzendaritza-organoari edo gobernu-organoari bidali, onar ditzan.
- Bideratu dagozkion diziplina-neurriak protokoloa betetzen ez bada.
- Jardueretara modu aktiboan eta familia-taldeetan edo talde murriztuetan joatea sustatu.
- Kirolariek eta haien familiek neurrietara edo taldera egokitzeko izan ditzaketen egoera bereziei erantzuteko neurriak gaitu edo laguntzei buruzko informazioa eman, ikasteko edo egokitzeko zailtasunengatik, maila sozioekonomikoagatik, gizarte- eta familia-ingurune kaltegarriagatik…
- Sustatu konfiantza- eta segurtasun-giroa, eskola-kirolean parte hartzen duten kolektibo guztiak eroso senti daitezen eta jarduera segurtasunez eta modu eraikitzailean garatzen laguntzeko prest egon daitezen.

**Informazio gehiago:**

- Eusko Jaurlaritzaren web gunea: https://www.euskadi.eus/pautas-actividad-fisica-y-deporte/web01-a2kirola/es/
- Aldundiak:

  Araba: https://web.araba.eus/eu/web/araba/kirola

  Bizkaia: https://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=291&idioma=EU&bnetmobile=0&dpto_biz=4&codpath_biz=4|291

  Gipuzkoa: https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/kirolak/coronavirus-informazioa
- Osakidetza:

  Zure osasun zentruaren kontaktua

Lan ordutegitik kanpoko larrialdiak: Araba: 945.244444

Bizkaia: 944.10000

Gipuzkoa: 943.461111

Aholku santarioaren telefonoa: 900 20 30 50

**ESKOLA KIROLA SEGURU ETA OSASUNGARRIA**

**Guztion konpromisoa ikasleek ikasturtean zehar ariketa egin eta giza-harremanak izan ditzaten**